

2. Sistema onomastikoa Antzinatean eta Erdi Aroan

Pielen arabera (1947: 147) erromatar hiritarrek hiru osagai onomastiko ibiltzen zituzten, *Marcus Tullius Cicero* adibidez. Lehena norberaren izena zen, bigarrena *gens*-aren kide guztiek zuten gentilizioa eta hirugarrena *gens* bakoitzeko familiak zeraman *cognomen*-a. Hauetaz landara ez zen bakana *agnomen* edo izengoiti baten edo gehiagoren erabilera: *Publius Cornelius Scipio Africanus*. Sistema hau itzaliz joan zen pixkaka-pixkaka², *praenomen*-a aurreneko mendeaz geroztik eta gentilizio edo *nomen*-a hirugarren mendetik aitzina, eta hondarrean izen bakarra edo *nomen singulare*-a ibiltzen hasi zen. Hau *cognomen*-a izan zitekeen, edo familiaren izendapena, *signum* deitzen zena: *Manlius Januarius qui vocitatur Asellus; Octavia Felicitas signo Leonti*, erraterako. Gai honetaz ikus, orobat, **Godoy** (1871: 4), **Leite de Vasconcelos** (1928, 12. or. eta hurr.), **Ernout & Meillet** (1994 [1932], *nomen* sarrera) eta **Díez Melcón** (1957: 24). **Viejok** (1998: 37-38), Kajantori jarraikiz, *supernomen*-a aipatzen du, zein *agnomen* nahiz *signum* izan baitzitekeen. **Irigoienez** (1987: 195) Akitanian eta Hispanian *cognomen*-a batzuetan genitiboan egoten zen, patronimikotako: *Q[uintus] Albi Vitalionis*, hots, *Q[uintus] Albi Vitalio*-ren semea, edo *Camilius Arrus Aionis f.*, alegia, *Camilius Arrus Aio*-ren semea.

Izen latinoaren bilakaera, **Kajantok** dioenez (1977: 421-422), zirkulu baten antzekoa da: historiaurreko garaietan erromatarrek izen bakuna zuten; gero gentilizioa agertu zen (*nomen*-a) eta honen ondorioz lehengo izen bakunak *praenomina* bilakatu ziren. Beranduago *cognomen*-a sortu zen. Ondoren, ikertzaile berak dioenez, *tria nomina*-ren sinpletze prozesua gertatu zen, eta azkenean garaile *cognomen*-a atera zen, V. mendearen hastapenerako jende xehearen artean, baina VI. mendean baizik ez handikien artean, *Mauritania Caesariensis*-en salbuespenarekin, hemen deizio bikunak (*duo nomina*³) beste alderdietan desagertu ziren garaietan bizirik zeudelako artean. *Tria nomina* sistemaren gainbehera inperio osoko bizilagunei erromatar hiritartasuna ematen zien Caracallaren aginduaren ondorioz hasi zen, honek berekin *praenomen*-a baztertzea ekarri baitzuen, zenbait alderditan IV. mende arte iraun bazuen ere, eta eskualderen batean VI.eraingo, ikusi bezala (**Viejo**, 1998: 38).

2. Dena dela, familiako erabilera sistema hirukoitz hori ez zela errotua gehitzen du Pielek.

3. *Tria nomina*-ren sistema bizirik zegoelarik ere emazteki askeek eta herri xeheak bi izen besterik ez zituzten. Ikus Viejok Kajantori jarraikiz dioena (1998: 37).

I. **Boullónen** arabera (1999: 21-26) Iberiar Penintsulako iturri epigrafikoetan ageri zaizkigun erromatarren aurreko izenak guti samar dira, baina garbi ikusten da horiek bakunak zirela eta izaera adjektiboa zutela. Gaian sakondu nahi ez badugu ere, Boullónnek “erromatarren aurreko garai”-tzat zer ulertzen duen zehaztu behar zukeen, inskripzio zeltiberikoetan izen konposatuak ere ageri baitira (ikus, adibidez, J. **Gorrotxategi**, 1990 eta **Villar**, 1995: 19 eta hurr.), eta *Turma Salluitana* delakoan ageri diren iberiar izenetan aitarena ere azaltzen baita (ikus, konparaziorako, **Schuchardt**, 1909, eta **Palomar**, 1960: 368). Galiziako ikertzailearen arabera (1995: 450) *tria nomina*-ren sistemaren finkatzea ez zen bera izan Penintsula osoan, eta, erraterako, berandu erromatartu zen ipar-mendebaldeko eremuan izen hirukoitz gutxi agertzen dira, Tarraconense edo Betica-ren aldean.

Nafarroako idazkuntan agertzen diren izenetan **Castillok** (1992: 126, 1997: 128-130) *tria nomina* dutenak hagitx gutxi direla dio, eta arruntena bi osagaiko (*nomen + cognomen*) deizioak direla. Ikertzaile honen arabera, filiazioa ez da erromatar eran adierazten, aitaren izengoitiaren bidez baizik. Castilloren lanean oinarrituz, J. **Gorrotxategik** (2000b: 95-96) Nafarroan azaltzen diren 217 lagunetarik *tria nomina* dutenak 24 baizik ez direla dio, eta estatutu pribilegiatua zuten hiru erromatar hiritarik datozela: *Cara*-tik (Santakaratik), *Andelos*-etik (Andiondik, Mendigorritik) eta *Pompaelo*-tik (Iruñetik).

Gasteizko irakasleak, Castilloren irizpide berak Arabari aplikatuaz, erraten du azaltzen diren 145 lagunetarik *tria nomina* dutenak 26 direla, Lantziegoko idazkun bateko sendikideez landa. Eskualde honetan izen bakuna edo bertako *cognomen*-a duten izendabideak ere nabarmentzekoak dira, Gorrotxategiren irudiko. Bizkaian 14 epigrafe daude eta hauetan *tria nomina* bi erromatar hiritarrek baizik ez dute; Gipuzkoan, berriz, bakarra da epigrafea eta bertako bi izenetako bat, aitarena, baskoi tankerakoa da ((*Val(erius) Beltesonis (filius)*)).

Menéndez Pidal & Tovar-ek (1962: 399-400) *tria nomina*-ren gainbehera kristautasunagatik gertatu zela uste dute, erlijio honetan bataioko izena bakuna izatea nahiago izaten baitzen. Zernahi gisaz, germaniarrek ere lagunduko zuten izen hirukoitzak galtzen, izugarritzko erraztasuna baitzuten izen eratorri eta elkartuak egiteko, pertsona identifikatzeko balio zuen izen bakuna sortuz. **Boullónnek** (1995: 450, 1999: 22) aurreko beste ikertzaileek erran zutena bilduz —Frantziako egoeraz ikus **Dauzatek** (1988 [1949] 31-32) dioena; ikus, orobat, **Díez Melcón** (1957: 25-26)—, kristautasunak izenaren sinpletzean paper garrantzitsua jokatu zuela uste du, izan ere, kristauak izan baitziren, antza duenez, izen bakuna aukuratu zuten lehenak (ikus, berebat, **Viejo**, 1998: 36-37). Galiziar ikertzaileak izen bakunaren nagusitzean germaniarren etorrerak ere eragina izan zuela uste du eta, erakusgarritako, erraten du izandako hogeita hamabi errege godoen artean bi izen besterik ez direla errepikatzen. **Pielek** (1947: 149-150) Meyer-Lübkeri kontra eginez garrantzia kentzen dio kristautasunak izenen sorreran izan duen eraginari, eta **Kajantok** (1977: 426) uste du erlijio haren papera hutsala izan zela eta izena

bakuntzearen arrazoiak sozialak eta are onomastiko hutsak izan zirela. Nolanahi ere, eta arrazoiak arrazoi, izen bakarraren sistema nagusitu egin zen, halako moduz non bisigodoak Penintsulara iritsi zireneko deizio anizkoitzak urriak baitziren. Frantzian ere erromatartzearekin hiru izenen sistema hedatu zen, baina ez jende xehearen artean, hauek biko sistema ibiltzen baitzuten. Gero, frankoek garaitzapena erdietsi zutelarik onomastika latinoan desegituratu egin zen, aipatu germaniarrek beren hizkuntza alde batera utzi arren lehengo izenak atxiki baitzituzten, bataio izen bihurturik (**Dauzat**, 1988: 31-32).

Kremer-ek dioenez (1990: 12 eta 1992: 463) izen bakarraren sistema dugu XI. mende arte; honek iradokitzen du, alemaniar ikertzailearen arabera, antroponimo desberdin anitz zeudela eta ez zela benetan modan zegoen izenik, lehen garai honetan. Izendegia zabala izan zen bitartean ez zen deizio bikoitzaren beharrik ikusi, baina garai batetik aurrera, eta zenbait faktorerengatik —bertako hizkuntzen galtzapena, modako izen gutxi batzuen hedatzea, arrazoi instituzional eta ekonomikoak...—, izen kopurua jaitsiz joan zen, jende kopurua gora zihoan bitartean. **Moreu-Reyk** (1985: 10-11) Kataluniaz mintzo dela dioen bezala, aise da izenak gutxituz joan zirela egiaztatzea baina ez hainbeste urritze horren arrazoiak zein izan ziren zehaztea. Zenbait autorek izen batzuen prestigioa aipatu dute, baina ikertzaile katalanaren arabera hau ez da aski, eta berak zergatiko instituzional eta ekonomikoak ematen ditu (ikus, orobat, **Boullón**ek [1995: 451] dioena): aurrenekoa jabe txikien finkatzea, plantatzea da, hauek jabego eskubideak beren oinordekoei anitzez errazago pasatzen baitzizkieten izen berak etengabe belaunaldiz belaunaldi irauten bazuen, batez ere lurrak zirela medio tartean auziren bat zegoenean. Moreu-Reyk aipatzen duen bigarren arrazoia (ibid., 12-13) endogamiarako joera da, zein handikien leinuetan hasiko baitzen, ondarea gorde eta atxikitze aldera; gero gizartean beheiti eginen zuen, edozein lur eta ondasun jabe harrapatu arteraino.

Aurrekoaren ondorioz izen bera zeramatenen kopurua berretuz joan zen, eta honekin batean, pertsonak nahasteko aukerak handitu eta identifikatzeko arazoak gehitu ziren. Nahasketak baztertzeko bigarren izena erabiltzen hasi zen (ikus **Díez Melcón**, 1957: 34-37 eta **Zierbide**, 1995: 213), bakan IX. mendean, gehiago X.ean eta arruntean XI. mendean bigarren erditik aitzina, Europa guztian (**Boullón**, 1995: 451, 1999: 23; Portugalgo Coimbra hirirako ikus **Durand**, 1990). Alabaina, **Bourinen** arabera, eta Frantziako egoeraz mintzo dela (1990b: 233-236), *duo nomina*-ren sistemaren zabalkundea ezin zaio, garbiro behintzat, izen kopuruaren murrizketari leporatu. Honela dio ikertzaile honek (ibid., 244):

“L’adoption du système anthroponymique à deux éléments est parfois interprétée comme une réponse à une évolution du *nomen proprium*, mais ces transformations sont probablement plus dialectiques qu’on ne le pense classiquement. En effet, il est admis habituellement que le stock des noms évolue par concentration sur quelques

noms dominants, par réduction de l'ensemble et par renouvellement du stock onomastique. Globalement cette évolution multiplierait les homonymies et nécessiterait l'intervention d'un deuxième terme dans la dénomination. L'enquête que nous avons menée à travers ces quelques régions ne confirme pas nettement cette théorie”.

Galiziako dokumentazioa aztertu duten zenbait ikertzailek (**Portela & Pallares**, 1995; **González & Pérez**, 1995) garbi ikusi dute izen bikoitzen erabilera izen kopuruaren murrizketari zor zaiola, ez alderantziz, eta handiki edo nobleen artean sortzen dela. Europako beste eskualde anitzetan bezala, izen bakuna nagusi eta ia bakarra da Galizian 1000. urte arte; gero, XI. mendean, sistema antroponimikoa aldatzen hasten da eta hurrengo mendean izen bikoitza argiro nagusitzen da. Hauetako bigarren osagarrian *nomina paterna* direlakoak dira jaun eta jabe; toki izenak, lanbideenak eta goitzenak aise bakanagoak dira.

Leongo *El Bierzo* deitu eskualdeko IX-XIII. mendeetako antroponimia aztertu duten autoreek (**Rodríguez & Durany**, 1995) antzeko ondorioak iristen dituzte, baina ez dute garbi ikusten izen murrizketak deizio bikoitzak erabiltzea ekarri zuen berekin ala ez, eta nahiago dute izen kopuruaren murrizketak eta bi osagaiko deizioen erabilera handitzeak bilakaera paraleloa izan dutela pentsatu. Leongo dokumentazioa aztertu duen beste ikertzaile batek (**Díaz**, 1998) IX. mendean usaian izen bakuna erabiltzen zela azaltzen du eta X.etik aitzina agertzen direla deizio bikoitzak: *x filius y* egitura dutenak, *izen + patronimikoa* itxurakoak, *izen + goitizena* erakoak, *izen + cognomenta* (goitizena edo) dutenak, *izen + (de) + toponimoa* egiturakoak eta, buruenik, *izen + lanbide-izena* segidak. Honen arabera, *corpus* antroponimikoaren urritzeari leporatu behar zaio bigarren izenaren agerpena.

Portugalgo *Bas-Douro* deitu alderdiko antroponimia ikertu duen R. **Duranden** arabera (1995) izen bikoitzen nagusitasuna, Galizian eta Bierzon ez bezala, erabatekoa da XI. menderako. Beste eskualde horietako “eboluzio” antroponimikoa “reboluzio” edo iraultza bilakatzen da, hemen tarteko aldi edo urratsik, trantsizio garairik alegia, ez dagoelako. Zernahi dela, bigarren osagaien, gutiz gehienetan, *nomen paternus* delakoa ageri da, aitaren izena, Galizian eta Bierzon agitu bezala; gaineratekoek ezaugarri fisiko edo moraletan dute oinarri, sorleku-bizilekuan eta lanbidean.

Kataluniako egoera aztertu duten M. **Zimmermannek** (1995: 355, 362) eta **To Figuerasek** (1995: 382, 385) erraten dute eremu horretan deizio bikoitzak agertzea ez dela izen urritasun gorriaren ondorio, alegia, izen hutsunea betetzeko sortutako konponbidea; aitzitik, ikertzaile horien irudiko izen kopurua gutxituz joatea da deizio bikoitzak azaltzearen ondore zuzena. Badirudi, dena dela, **Moreu-Reyk** bestela pentsatzen duela (ikus gorago). Autore honen iritzian (1985: 14-16) kontu egin liteke aurreneko izen bikoitzak agertzea arabiarrekiko harremanen ondorio izan dela, baina Kataluniako eta Pirinioetako egoera ikusirik erran daiteke

hau ez datorrela bat dokumentazioarekin, besteak beste mendiez iparraldekoan hegoaldekoan bezainbeste izen edo deizio bikoitz azaltzen direlako.

Filiazio sistemen agerpena IX. mendean datatu dute **Menéndez Pidal** eta **Tovar**-ek (1962: 400-402); garai honetan izen bereziaren ondoan aitarena ezartzeko ohitura agertzen da, baina bakarrik Asturiasen eta Akitania edo “Wasconia”-n. Lehen eskualdean mende horretan genitiboa agertu ohi bada ere, 835eko dokumentu batean *Nunus Gutierris* azaltzen da, latinaren eraginez *-s* duen aldaera alegia. Lehen *-z*-dun formak Gaztelan aurkitzen ditugu, 824. urtean: *Monnio Nunniz*, *Monni Nunniz*.

Boullónek (1999: 24) 854. urtean aurkitu ditu lehen patronimikoak Galizian, eta **Viejok** (1998: 52) 951. urtean Asturiasen; eskualde honetan X. mendearen hastapeneko lekukoak ere badira, baina ez agiri originaletakoak. Euskal Herriko lehenak, dakigunez, Leireko 850. urteko *Exemeno Banzones*, *Galindo Bertuiones* eta *Micarro Menzones* dira (ikus hamaikagarren atala); Valpuestan, 804ko agiri batean, *Didaco Didaz*, *Didaco Pelai*, *Gudistio Pedriz*, *Nunno Nunniz*, *Osoro Petriz*, *Petro Annaiaz*, *Seuero Nunniz* eta *Tello Telliz* azaltzen dira. Nolanahi ere, izen bakarraren erabilpena, Europan, X-XI. mendeetaraino luzatzen da, eskualdeen arabera; garai horretatik aitzina izen bikoitza ibiltzea izanen da nagusi, Nafarroan eta Errioxan X. mendeaz geroz, Viejoren iritzian (ibid., 35 eta hurr.). Hemen beharbada Aragoiren salbuespena azpimarratu behar genuke, **Lalienak** dioenez (1995: 307-308) eskualde horretako Pirinioetako ibarretan, San Juan de la Peñako agirien arabera (XI. m.), nekazari aske eta kapareen % 84k *izena + nomen paternum* egiturako deizioa baitute, eta jopuen artean % 73k. Zernahi dela, ikertzaile horrek uste du dokumentuetan *izena + aitaren izena genitiboan + toki izendapena*-ren tankerako egiturak agertzea gehiago zor zaiela lege arrazoiei eta dokumentuen erredakzioarekin lotutakoei, aurreratuago zegoen antroponimiaren zabalkundeari baino. Autore berak, aitzinago (ibid., 310), erraten du *nomen paternum*-en erabilera, Aragoi eta menturaz Nafarroan, gutxienez IX. mendeaz geroztik dagoela indarrean. Errekonkistaren eta etorkin frankoen agerpenaren ondorioz beste stock onomastiko batzuk azaldu eta *nomina paterna*-ren sistema maldan behera abiatzen bada ere, urritze hau ñabartu beharra dagoela uste du aipatu ikertzaileak, izen berriak usu desegokiak direlako genitiboan edo “dagokien erromantzeko itxurapean” azaltzeko (ibid. 319).

Kremer-en arabera (1990: 12, 1992: 463) izen konposatuak egiteko hiru aukera zeuden: patronimikoa (“die Filiation oder Name des Vaters”), jatorria (“die Herkunft [Ortsname oder Ethnikon]”) edo izengoitia (“ein Beiname [Beruf oder soziale Stellung, physische oder moralische Merkmale]”)⁴. Ikertzaile honek

4. Díez Melcónnek dio (1957: 38-39) *cognomento*-a familiaren barrenean sortzen dela eta balio ofiziala hartutakoan benetako deituraren papera egiten duela: *Johannes cognomento Abavita*, *Maria cognomento Auro*, *Controdo cognomento Matre Vita*...

dioenez, oraino ere deitura espainolen eta portugaldarren osagarririk behinena den patronimikoa ageri da nagusi dokumentazioan.

Moreu-Reyk, alemanaren aitzinetik (1985: 16. or. eta hurr.), izengoitietan funtzioa (zeregina edo) eta lanbideak adierazten dituztenak sartzen ditu lehenik, jatorria edo toponimo batekin zerikusia dutenak gero, eta filiazioaren berri ematen dutenak buruenik. Izengoiti toponimikoetan erlazioa adjektibo baten bidez adieraz daitekeela dio, hau da, herritarren izenaren bitartez —hau ohikoa zen handikien artean—, toponimoa izenari ondoratze hutsarekin, genitiboko alborakuntzaren bidez (*Bernardus Torronis* adibidez) edo *de* preposizioa baliaturik. Beste ikertzaile batzuei ez bezala, katalanari izengoitiek izena ordezkatzeko xedea zutela iruditzen zaio, ez hura osatzeko: “...i, malgrat el que creguin d’altres especialistes, a nosaltres no ens semblen —en llur majoria— additius, sinó més versemblantment supletius”.

Viejok, Asturiasko egoeraz mintzo denean (1998: 38-41 eta 44), iturri epigrafikoetan oinarrituz erraten du patronimikoaren erabilera (*izena + aitaren izena genitiboan*; batzuetan *izena + gentilizioa genitibo pluralean + aitaren izena genitiboan* agertzen da) Asturiasen lehen mendean dokumentatzen dela, sobera goiz latinaren eraginean pentsatzeko. Honetan oinarri harturik autoreak honako hau ondorioztatzen du: “es difícil evadir una relación de continuidad con el sistema patronímico bajomedieval que emergerá con fuerza en la documentación de estos mismos territorios —Espainiako ipar-mendebaldean—, como típicamente hispánico frente al de otros países europeos románicos, a partir del siglo XI”. Alegia, Espainiako ipar-mendebaldean (eta Akitanian) Erdi Aroan kausitzen dugun sistema patronimikoa erromatartzearen aurreko sistemaren iraupena besterik ez da. Jatorrizko sistema hau bat zetorkeen, hein batez, erromatar sistemarekin, etorkia biek eredu indoeuropar berean baitute. Honek, jakina, Galizia, Asturias eta Kantabriarako balio dezake, baina ez nahitaez Euskal Herrirako, ez eta Antzinatean euskalduna izan zen Akitaniarako ere.

Hispaniako ezaugarri nagusia, Viejok dioenez (1998: 80), patronimikoaren erabateko garaipena da, bigarren izenaren zabalkundea gertakari europarra baita, ez bakarrik hispanikoa; hau, ikertzaile beraren arabera, aurreko egitura antroponimikoei eustearen ondorio izan liteke. Ez du zalantzan jartzen, alabaina (ibid., 46), atzizki patronimikoa, formaz, latinetik atera zela. Izan ere, atzizkia bere ustean latineko hirugarren deklinabideko genitiboaren aztarna da, zein bigarren deklinabideko genitiboekin aldizkatu ondoan nagusitu baitzen.

Puntu hau bukatzeko, erran nahi dugu zenbait ikertzailek aipatzen duten XII. mendeko “iraultza antroponimikoa”, hots, izen bakunetik deizio bikoitzera igarotzea Euskal Herrian nola gauzatu zen ez dakusagula zeharo garbi. Izan ere, lan honen helburu nagusia sistema patronimikoa eta beronen bilakaera aztertzea izan da, ez hainbeste izen bakunaren sistematik deizio bikoitzarenera nola igaro ginen

xeheki azaltzea. Gainera, guk erabili dugun dokumentazioa oro har berriegia da alderaketak egin ahal izateko, gehien-gehiena XI. mendean gerozkoa baita. Irudi du, bai, Valpueda, Donemiliaga, Leire eta bestetako agiririk zaharretan izen bakunak usaiakoagoak direla dokumentazio berriagoan baino, baina ez gara hainbestekotan eta erkaketan sartzeko eta hasteko egoera egokian⁵. Hau ere, lan honetan ukitzen diren beste puntu anitz bezala, geroko ikerketak argitu beharko du beraz.

5. Zierbidek (1995: 212), Lizarrako frankoen onomastika aztertzean, 1090-1222 epean izen bakunak % 18'32 direla dio, baina ez du zehazten ehuneko hori mendeka nola banatzen den.